



HEZKUNTZA PROIEKTUA

Dokumentu honek Izaera Propioa ikastetxeko errealitateari egokitzen dio. Egokitzapen hori egiteko, ikastetxearen orain arteko ibilbidea jaso eta oraingo egoerari erantzuten dio.



AURKIBIDEA

1. Ikastetxeko identitate ezaugarriak	3
2. Hezkuntza helburuak	9
3. Hezkuntza eragileak	14
4. Metodologia eta baliabide materialak	21
5. Organizazio egiturak	24
6. Ebaluazioa	25

1. IKASTETXEKO IDENTI- TATE EZAUGARRIAK

Hezkuntza integral eta kalitatezkoa

Ikasle bakoitzaren osotasuna hartuko duen kalitatezko hezkuntza bat biltzen dugu. Gure hezkuntzak pertsonaren dimentsio guztiak (burua, bihotza, erabakiak, jokabideak...) hartzen ditu eta gizakia ibiltzen den esparru guztietatik (eskola, familia, aisialdia, lagun taldea, batxiler ondoko garaia...) iritsi nahi dugu ikaslearengana.

Hezkuntza integral eta kalitatezkoaren bila ibiltzeak esan nahi du:

- **hezkuntza pertsonalizatu bat** (jarraipen pertsonal, tutoretza eta bere egoera bereziari dagozkion neurriak) gure ikasleetako bakoitzaren egoerari erantzungo diona.
- **prestakuntza on bat** bere gaitasun guztiak garatu eta gizartean toki egoki bat aurkitzea ahalbidetuko diona.
- premia handiagoa duten ikasleekin **ardura gehiago**, hau da, laguntza eta errefortzu ekimen zehatzak eta dedikazio handiagoa.
- eskolaz kanpoko ekintzetan eskaintza zabal bat egitea. Bat etorri behar du ikastetxeko helburuekin eta eskola orduetatik eta ikastetxeko urteetatik harantzago **hezkuntza jarduerarekin jarraitzea** ahalbidetuko du.
- hezkuntza eragile guztien lana (guraso, irakasle, monitore, lagun taldeak...) **koordinatzea**.
- orain eta geroko bizimoduan eragina izango duten **zenbait balio** (ebanjelioaren mezuan oinarrituak) **eskaintzea**.
- Pertsonaren **dimentsio guztiei** (arloan kognitibo, afektibo, sozial, espiritual eta fisikoan bildu daitezkeenak) erantzutea.
- **Gizarte jakin batean txertatua**. Gizarte honen partaide sentitzen gara eta hurrengo belaunaldiak prestatzen zerbitzatu nahi diogu: iraganarekin adeitsu eta oraingoarekin arduratsu izanez, geroaldi hobe bat sor dezaten guztientzat.

Ebanjelizazioa

Guztiei, askatasun giro batean beti, Jesusen Berri Ona aurkeztu eta eskaini nahi diegu, eta gainera Jesusi jarraitu eta kristau komunitatea sortu eta sendotu nahi dutenei lagundu. Ebanjelizazioa, ikuspegi honetatik,

lehentasuna duen helburua dugu. Ebanjelizazioa guretzat hauxe da: batetik ebanjelioa berariaz iragartzea (gero aldaketa pertsonala eta, mundu hobe baten bila, gure lurra eraldatzeko lana ekarriko dituen) eta bestetik gure elizaren kide izatera gonbidatzea.

Ebanjelizazio mota honek berekin dakar:

- familian jaso ez dutenenei **lehen iragarpen bat**.
- **Katekesi eta erlijio kulturako prestakuntza bat**: Jesusen pertsona eta gizaki bakoitzarentzat zein gizartearentzat duen mezua eta fede kultura elkarriketarako gonbidapena.
- **kristau esperientziaren pedagogia bat** barneratze unetan, otoitz egitean, sakramentuak eta liturgia bizitzean, kristau komunitatean konpartitzean eta mundu hobe baten aldeko konpromisoa hartzean oinarritzen dena. Pedagogia honek ahalbidetzen duen fede motak ezaugarri hauek ditu: Jesusekiko eta berak erakusten digun Jainko Aitarekiko konfiantza eta atxikimendu pertsonala eta jarrera bat Aitaren eskuetan gaudela dakigunez gero bizi konfiantza.
- Jesusen berri onari emandako erantzun gisa **konpromisoa** eskatzen duen eskaintza bat: bizimodu koherentea, besteenganako dedikazio zehatza, eta erreinua sortzeko prestasuna eta elkar erantzukizuna.
- Bihozberritu eta ebanjelioaren gizon-emakume berriak sortu nahian, eguneroko bizitza eta giroan dugun jokabidea **ebanjelioaren jarrerekin parekatzea**.
- aukera libre eta pertsonaletik abiatuta, **koherentzia** fedearen eta bizitzaren artean.
- **taldean eta bakarka egiten den prozesu bat**, Jesusen aurkikuntza eta jarraipenari lagun egiten diona eta kristau komunitatean inkardinatzea ahalbidetzen duena.
- **kristau bizipen hori gizarteratzea**, taldean, komunitatean eta elizan konpartituz.
- ikastetxea **gazte pastoralgintzako zentrotzat** jotzea, bere karisma eta estilo propioarekin, eta horrek dakartzan ondorio eta erantzukizun guztiekin.

Gizarte eraldatzea

Eragile izan nahi dugu gizarte eraldatzen, bai gure ikastetxetik ateratzen den pertsona motagatik, bai ikastetxean bertan burutzen diren egintza zehatzengatik. Ikastetxeak, eraldaketa bilatzen duenez, esklabotza guztietatik askatzea du helburu nagusia, barruko eta pertsonaletatik zein sozial eta egiturazkoetatik. Nahi dugun gizartean bakoitzak bestea (baita bere burua ere) balio handiena bezala ikusiko du. Horrek eraldatze bat

esan nahi du, mundu zuzenago, gizatiarrago eta anaikorrago baten bila abiatzea.

Mundu gizatiarrago baten alde apustu egiteak esan nahi du:

- **Premia handiagoa dutenekin arreta eta ardura gehiago hartzea.** Hauxe baita gure aukera: premia bereziak dituzten ikasleak integratzea eta gure ikastetxean zailtasun handiagoak dutenei arreta gehiago ematea.
- Lan hori hemen eta orain, **suertatu zaigun garai eta errealitatean, egin beharra.** Lan askatzaile hau gure gizartean sartu, eta haren kultura eta balioetan txertaturik egin behar da, bestela ez da askatzailea izango.
- Gure hezkuntza **inguratzen gaituen errealitatean txertatua** egon eta ezaugarri hauek izan behar dituela: errealitatea aztertzeko gaitasuna, zentzu kritiko eta sortzailea, jarrera errukitsua (besteekin, sufritzen dutenekin, errukitzea) eta besteekin batera erantzule izateko sentimendua.
- Gure hezkuntzak errealitatea **Jainkoaren erregetza den utopiara**, non denak anai-arrebak bezala biziko garen, hurbildu nahi duela, ez bakarrik gizakia gaurko gizarteari egokitu, baizik eta errealitatea ebanjelioaren balioen arabera eraldatu ere.
- Gure **gizarteak dituen premia nagusiei erantzutea**: bakea eta adiskidetzeta, justizia soziala eta elkartasuna, eta baztertuen aldeko borroka.
- **Zeinu zehatz batzuk**, eta haien artean nabarmenak: ikasleen premia zehatz batzuei laguntzea (bekak eta familiarako diru laguntzak, eskola laguntza, hurbiltasuna eta laguntza pertsonala), proiektu jakin batzuen aldeko elkartasun kanpainak (hirugarren mundua, marjinazioa...), gogoeta eta elkartasun asteak (bakea...), batzorde eta lan eremuen eskaintza (bakea, justizia soziala, baztertuak...), pertsona konprometituak prestatu eta formatzea...
- izaera propioan adierazi genituen zenbait balio beti presente egon behar dutenak: errespetua, elkartasuna, sormena eta askatasuna; barnetasun pertsonalizatua; kristau fedea, eta ikastetxeko organo egokiek erabakiko dituztenak.

Eskaintzen dugun eredia guregan gauzatzea

Eta asmo hauek guran, irakasleengan, ikastetxeko antolakuntzan, eguneroko funtzionamenduan presente egin daitezten nahi dugu. Ezin dugu ahaztu oinarrizkoena pertsonak direla, eguneroko eginkizunak helburuak lortzeko baliabide praktikoak, eta azpiegitura, azkenik, erabiltzeko tresna bat.

Aukera honi zinez erantzuteak suposatzen du:

- erronka bat: Ikasleak eta hezkuntza komunitateko kide guztiak bultzatu eta **hezkuntza proiektu hau konpartitzera** iritsi gaitezten ahalbidetzea.
- **prestakuntza prozesuak** prestatzea, ikasleentzat zein irakasle eta gurasoentzat.
- Jarduera hau ez dela eskola urteetan bukatzen, baizik eta **helduarora iritsi arte jarraitzen duela**. Horregatik hezkuntza komunitateko beste kideak ere prozesu berean sartzen dira.
- **laguntzaile boluntarioek** duten eginkizun nabarmena (normalean gure prozesuetatik datozen gazteak eta gure lana estimatzen duten guraso, irakasle eta helduak). Ez dira bakarrik ekintzen eta proiektuaren eragileak, proiektu horren jasotzaileak baizik.
- helburuak lortzeko **hornidura egokia**: baliabide eta material pedagogikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak, pastoral eta gazte animaziorako gela propioak, elkarbizitzak eta topaketak egiteko etxeak, ikastetxeko egitura eskolaz kanpoko premiei irekia...
- eskola urteak bukatzean hasten diren etapak egituratzeko eta ikastetxe inguruko eta zehazki akademikoa ez den mugimendua biltzeko **kultur elkarteak** sortzera jotzen dugu. Esandako elkarteek ez dute bakarrik ikastetxeko proiektu orokorra onartzen, baita ere berea egin eta esandako proiektuaren motor bihurtzen dira bai elkarteko kideentzat bai ikastetxearentzat. Azkenean ikastetxea eta elkartea gauza bera dira, zentro eta proiektu bera. Egitura bikoitz honek eguneroko koordinazio estua eskatzen du. Batez ere errealitate horietako bakoitzak lor dezakeen konplexutasuna kontuan harturik.
- ez dugu nahi inguruko munduari itxita dagoen ikastetxerik, eta gurea errealitateari irekita nahi dugu. Hori guztia garbi nabarmentzen da batetik ikasleen garapen eta hazkuntzan eragina duten agenteekin (familia, elkarteen mundua, eliza esparruak, gizarte giroa, boluntarioen erakundeak...) dugun **koordinazio eta lankidetzan** eta bestetik inguratzen gaituen munduarekiko dugun irekitasun eta etengabeko azterketan.

Hezkuntza komunitate horretan estamentu bakoitzak bere ekarpena egiten dio proiektu orokorrari

Hezkuntza komunitatea osatzen duten estamentu guztiei garbi eskatzen zaie ikastetxeko proiektua ezagutu eta harekin identifikatzea, hezkuntza proiektuarekin zein komunitateko beste kideekin konpromisoa hartzea. Estamentu bakoitzak aurrera eramaten du bere erakarpen berezia. Hezkuntza komunitateak ez du ikastetxeko proiektu orokorra bakarrik onar-

tzen, batez ere bere alderdi hezitzaileak, baizik eta kristau komunitatearen eta gizarte eraldatzailea den ikastetxeko motor baten existentzia ere bermatzen du, bi errealitate hauek derrigor egon behar baitute ikastetxean.

- Horrela, bada, gurasoek, beren seme-alaben hezkuntzaren erantzule nagusiek, ikastetxea aukeratzean aurkeztu berri dugun proiektua onartzen dute, baita bere familia bizitzatik bertatik eta ahalbide eta interesen neurrian ikastetxeko eginkizun eta ekimenetan parte hartzea.
- Irakasleak, hezkuntzako profesionalak, ikastetxeko proiektu orokorren sustatzaileak dira eta beren prestakuntza eta dedikazio espezifikoak jartzen dituzte. Ordutegiak eta eskola lanak markatzen dute beren jardun-eremua, eta esparru horretan helburuak lortzeko haiek dira erantzule nagusiak. Beren ahalbide eta interesen neurrian ere ikastetxeko beste esparru batzuetan parte har dezakete.
- Eskolaz kanpoko hezitzaileak (monitoreak, entrenatzaileak...) ikastetxeko proiektu orokorra onartzen dute, eta bertan parte hartu eta lan egitean, beren lan espezifikoaren erantzukizunaz gain, lan boluntarioak duen doako keinua jartzen dute agerian.
- Eskolapioek, erakunde titular gisa, hezkuntza komunitatea eta ikastetxeko proiektua sustatzeko erantzukizuna hartzen dute, haien jarraipenaren bermatzaile bihurtzen baitira. Dagozkien ondorioak onartuz, beren eginkizun profesionala irakasleekin konpartitzen dute eta monitorea eta entrenatzaileekin osatzen dute.
- Ikasleek ere, adin eta ahalmenaren arabera, ikastetxeko proiektu orokorra onartzen dute, eta esandako proiektua askatasunetik bere egiten dutenez eta hezkuntza komunitatearen gainontzeko kide guztiek begiratzen dioten puntua direnez ikastetxeko jardueraren protagonista bihurtzen dira.
- Eskola urteak igaro ondoren, ikasle ohiek hezkuntza komunitateko kide izaten jarrai dezakete, beren dedikazioa hezteko, ebanjelizatze edo eraldatzeko lanetan emanaz. Horrela ez bakarrik premia propioei dagozkien erantzunak jasotzen, baizik eta hezkuntza komunitate osoari ekarpen ederra egiten diote, ez bakarrik lan zuzenarekin baita erreferentzi puntu bezala beren presentziarekin ere.
- Ezin da ahaztu eginkizun ez hezitzaileetan lan egiten dutenen (administrazio, ekonomia eta garbiketa langileak) ekarpena. Ikastetxean beharrezkoak dira eta beren aldarte, jarrera eta lanarekin, ikastetxeko martxa onerako behar diren bitartezko baldintzak ahalbidetuz, ederki laguntzen dute proiektu orokorrean.
- Hezkuntza komunitateko kide batzuek, Jesusen jarraipena erreferentzi marko horretan bizitzen saiatzen direnek, kristau komunitatea osa-

tzen dute. Eta nolabait, Ikastetxeko proiektu orokorraz gain, bereziki eginkizun ebanjelizatzaileaz arduratzen dira.

2. HEZKUNTZA HELBURUAK

Hezkuntza komunitateak hezkuntza xede hauek lortzeko konpromisoa hartzen du:

Hezkuntza integral eta kalitatezkoa

- Ikaslearen dimentsio indibidual, sozial eta transzendentea kontuan hartuz, bere nortasunaren garapen osoa, pertsonaren ikuspegi kristauan oinarritua (LOGSE 1, 9; Izaera propioa 1, 2, 3, 6, 7)
- Bizikidetzako printzipio demokratikoen barruan oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatzen eta tolerantzia eta askatasuna erabiltzen prestatzea.
- Bere “banakotasun” propioa kontuan hartuz, lan teknikak eta ohitura intelektualak eskuratu, eta bere prestakuntza pertsonalari lagunduko dieten, geroko estudio eta lanbiderako gaituko dituzten eta sen kritikoa garatuko duten ezagutzak hartzea (LOGSE 1, c ; 2, 3, d. Izaera propioa 8, 12, 18)
- Aniztasun linguistiko eta kulturalaren errespetuan prestatzea.
- Bizitza sozial eta kulturalan aktiboki parte hartzeko prestatzea.
- Prestakuntza pertsonalizatu bat, zeinek giza balioak bultzatzen dituen metodologia aktibo baten bidez, kristau ikuspegi batetik eta eskolako orduetatik harantzago, bizitzako eremu guztietan ikasleen hezkuntza integral bat erraztuko baitu. (LOGSE 2, 3, 9 ; 1, g; 2, 3, h. Izaera propioa 10, 11, 12, 13, 16, 17, 19, 20)
- Eskola eta lanbide orientazioa, eta laguntza psiko-pedagogikoa.
- Inguru sozial, ekonomiko eta kulturalarekin harremanak izan, eta hezkuntza komunitateko kezka guztiei erantzuna emateko inkulturazioa bultzatzea. (LOGSE 2, 3, j. Izaera propioa 5, 19)
- Ikasleak laguntzea bai beren gaitasun propioak bai ahalmen fisiko, psikiko, intelektual, afektibo, etiko eta sozialak aurkitu, ezagutu, garatu eta hobetu ditzaten; ahalmen sortzailea sustatuz lan akademikoaren bitartez, eskolaz kanpoko ekintzen medioz eta ekimen kulturalen bidez.
- Ikasleei pentsatzen ikastera, pentsatzera, ikasten ikastera eta gehiago ikastera bultzatuko dituzten saioak prestatzea; erne egoteko, gogoratzeko, ulertzeko, adierazteko, aztertzeke, aplikatzeko, sortzeko

eta baloratzeko duten gaitasunak garatuz; gelan parte hartze aktiboa bilatuz; ikasteko estilo desberdinak eta aurretiko kontzeptuak kontuan hartuz.

- Alde kognitibo eta akademikoak ez ezik, baita beren heldutasun maila, jarrerak eta pentsatzeko eta hausnartzeko gaitasuna ere modu askotara ebaluatu eta baloratzea; eta hori guztia beren autoebalua-zioa egiteko eta etorkizunean antzeko egoerei aurre ematea ahalbidetu-tuko duten eskema pertsonalak sortzeko gai izan daitezen.
- Ikasle bakoitzaren nortasunaren heldutasun prozesuan eta bizitzarako bidea aukeratzean orientazio laguntza indartzea.
- Banako eta talde tutoretza bultzatzea, eskola eta lanbide orientazioa emateko eta ikasleen curriculumaren dibertsifikazio eta egokitzapenak burutzeko bera baita tresna nagusia.

Ebanjelizazioa

Jesusenganako fedea ez da beste balio bat gehiago, balio guztiei zentzua eta osagarria ematen diena baizik. Egia da fedea gure hezkuntza ikusmolde guztian eragiten duela, baina esplizituki fede horretan hezi nahi dugulako aipatzen dugu hemen.

Gure fede hezkuntzak alderdi hauek ditu:

1. Eskolako erlijio irakaskuntza, hau da:

- modu sistematikoan erlijiotasuna orokorki eta kristau erlijioa bereziki estudiatzea
- gure kulturako osagai garrantzitsua
- gizakiak dituen galdera existentzial handiei erantzutea

gizartearekiko jarrera kritiko eta konprometitua

- errespetu eta askatasun esparru batean ikasle guztiei egiten zaien eskaintza
- Jesusek gizon-emakumeei dakarkien berri ona aurkitzea erreinua eraikitzekeo pizgarria

2. Banaka zein taldeka ospatzeko, otoitz egiteko, isilik egoteko, gogoeta egiteko une eta lekuak:

- fedea adierazi eta bizitzeko
- fedean hazi eta umotzeko

3. Ebanjelioko balioak praktikan jartzen dituzten saioak, adibidez: mundu hobea lortzeko lanetik jaiotzen diren kanpainak, gizatasuna endekatzen duten egoerei erantzunak, zenbait zerbitzu...

4. Askatasunean, maitasunean eta Jesusen heriotza-piztuerako bidean hazi ahal izateko, ahalegina, austeritatea, uko egitea eta sakrifizio pertsonalak etikoki eta praktikoki baloratzea.

5. Kristau komunitatearen presentzia eta jokabidea ikastetxe barruan, Eta horren arabera:

- ikastetxeko martxan kristau balioak bultzatu eta suspertzea
- erreferentzi eta estimulu gunea hezkuntza komunitateko kide guztientzat
- nahi duten gazteak zenbait talde eta elkarteren bitartez komunitate bizi-itzan abiarazteko baliabidea

Honekin guztiarekin hau lortu nahi dugu: sinestun gazteek beren aukera erlijiosoa umotu eta kulturari integratu dezaten, beren fediaz testigantza eta arrazoia emateko trebatuz: bila daudenek gogoeta egin eta zalantzak argitu ahal ditzaten eta sinesten ez duten ikasleek beren sinesgabetasun egoera fede ikuspegiekin konparatu ahal ditzaten.

Gizartea eraldatzea

- Bakerako prestakuntza, herrien arteko kooperazio eta elkartasuna.
- Eskubide berdintasuna sexuen artean, edozein diskriminazio mota arbuia eta kultura guztiak errespetatzea.
- Ingurumenaren babes eta defentsarako prestakuntza.
- Ikasleak prestatzea, libre eta erantzukizunez erabaki pertsonalak hartu eta zentzu kritikoa garatu eta erabil dezaten.
- Jarrera demokratiko, solidario eta partehartzaileak irakatsi, sustatu eta baloratu eta tolerantzia eta elkarrenganako errespetu eta lankidetzan joka dezaten saiatzea; berdintasun maila batean, norberaren egoera berezia kontuan hartu gabe, gizaki guztien duintasuna eta kultura eta gizarte desberdinak estimatuz, eta elkarriketa, ulermen, justizia, berdintasun eta guztien arteko bakearen alde eta natura zaintzearen mesedetan jokatu.
- Lan, estudio eta ahaleginak duen garrantzia aintzat har dezaten, eta horrela erantzukizunez pertsona bezala arlo eta ikasketan guztietan hazi eta hel daitezten eta norberaren eginkizunen eta gizarte konpromisoen aurrean arduratsu eta sentiberak izan daitezten.

Eskaintzen dugun eredia gure egin, eta gure baitan haragitzea

- Hezkuntza komunitateko kide guztien jokabide egunerokoak bat etorri behar du hezkuntza proiektu honetan adierazi diren balio eta aukerekin.

- Irakasteko eta ikasteko prozesuak ebaluatzea.
- Ikaslearengan konfiantza eta automotibazioa sortuz, ekintza positiboak baloratzen dituen giro suspergarria asmatzea.

Hezkuntza komunitate honetan estamentu bakoitzak bere ekarpen berezia egiten du

- Guraso edo tutoreak ikastetxearen martxan inplikatzeko, beren seme-alaben hezkuntza prozesuan parte har dezaten eta ikastetxeko ekintzetan konpromiso handiagoa lortzeko (LOGSE 2, 3, b. Izaera propioa 1, 3, 27)
- Demokratikoki jokatzeko ohiturak sustatzea.
- Irakasle eta hezitzaile guztien inplikazio ahalik eta handiena ikastetxeko martxa orokorrean eta hezkuntza proiektuan adierazitako helburuak lortzeko lanean.
- Ikastetxearen autonomia pedagogikoa legediak agintzen duen eremuaren barruan eta irakasleen ikerlana praktikatik abiatuta.
- Irakasleen gaitasun eta dohain profesional eta pertsonalen garapena bultzatzea.
- Irakasleei, kudeaketa organo guztietan sartuz, ikastetxeko martxa eta funtzionamenduan parte aktiboa har dezaten adre ematea.
- Ziklo eta etapa taldeak sortu, eta departamenduen bidez talde lana bultzatzea.
- Irakasleen praktika hobetu edo aldatzeko asmoz, ikerlana bultzatzea.
- Ikastetxean egiten diren berriztapen proiektuetan irakasleak sar daitezela bultzatzea.
- Irakas-ikasteko prozesua ikaslearen testuinguruan ematea: bere kultur eta gizarte esparruan, bere egoera pertsonal eta familiarrean; beti, hala ere, kidea den ikastetxe eta hezkuntza komunitatearen giroan.



3. HEZKUNTZA ERAGILEAK

Gure hezkuntza proiektuak batetik bere egin eta praktikara eramango eta bestetik gure jasotzaileei eskaintza erreal, bizi eta pozgarritzat aurkeztuko duten pertsona batzuk behar ditu. Hezkuntza komunitatearen alde egiten dugun lehentasunezko aukera aipatu dugunean hori esan nahi izan dugu: hezkuntza komunitate bat, non estamentu bakoitzak bere ekarpen berezia egiten baitio proiektu orokorrari.

3.1. IRAKASLEAREN SOSLAIA

Ulertzen dugu gurea bezalako hezitzaile talde batean, irakasle eta monitorean artean, hezkuntza proiektuarekiko guztiz baliagarri eta positiboak izan daitezkeen jarrera diferenteak eta inplikazio maila desberdinak aurkitzen direla. Inportanteena beste hau da: bakoitzak obra orokorrean zer paper jokutzen duen konturatu, hezkuntza plangintza orokorrari bakoitzak ekarpen propioa egin eta proiektu horri hezitzaile talde osoak erantzun diezaion.

Gure ikastetxeko irakaslea

Irakaslearen irudia argitzen laguntzeko, eredia lau ataletan aurkezten dugu. Aurkezpen honetan metodologikoki lau ataletan banaturik erakusten dugu ideala, baina errealitatean esparru horiek haien artean oso lotuta daude. Atal hauek etengabeko prestakuntzarako balio digute eta ikastetxean kontuan hartu behar dugu ibilbide hori.

1. Ondo prestatua bere gaitasun akademikoan

Guretzat arlo honetan irakasle ona da:

- bere gaia ondo menderatzen duena.
- gai bera ematen duten beste irakasleekin (mintegian) talde lanean dakiena.
- irakasten, eta metodologia eta ikasteko teknika desberdinak erabiltzen dituena.
- ikasleen artean dagoen aniztasunari irekita, bakoitzarentzat erantzun egokiak bilatu eta behartsuenekin ardura berezia hartzen duena.
- bere hezkuntza lanean ikastetxearentzat oinarrizkoak diren balioak sartzten dituena.
- ikasleak zein bere burua eta hezkuntza proiektua ebaluatzen dakiena; eta ebaluazio horren arabera behar dituen aldaketak sartzten dituena.

2. Ondo daki zer den irakasle izatea eta horren arabera zuzen erantzuten du.

Irakasle izateaz gain, hezitzaile ere izateak ezaugarri hauek eskatzen ditu:

- bere hezitzaile paperaz ondo jabetzea
- bere burua hezitzaile sentitzea
- beste hezitzaile guztiekin partekatzen duen hezkuntza proiektu batean lan egitea
- tutoretza, ardura eta orientazioekin ikasleen hezitzaile aritzea
- hezteko estrategia egokiak ezagutu eta aplikatzea
- ikaslearen eta haren munduaren hurbil egon, eta harekiko harremanak leial eta egitiak izaten ahalegintzea
- ikasleen gurasoekin, haien hezkuntzaren erantzule nagusiekin, etengabeko harremanetan egotea.
- aldaketa, elkartasuna eta marjinaziorik eza lantzeko, hezkuntza prozesu bat programatzea.

gaurko kultur errealitatean murgilduta bizitzea

3. Gure ikastetxeak eskolapioen estiloa du

Gure ikastetxeak estilo eskolapioaren irakasleak behar ditu, profesional eta hezitzaile onez gain, eskolako esparrua zein eskolaz kanpoko menderatzen dituztenak. Estilo horrek ezaugarri hauek eskatzen dizkio irakasleari:

- Bai lanaren osotasunaz bai berak, guztien arteko lan hezitzaile horretan, jokatzeko duen paperaz kontzientzia izatea, bi aldeak baloratuz
- Informatua eta harremanetarako irekia egon, eta lan orokorraren partaide sentitzea.
- Eskolako eta eskolaz kanpoko elkartzeko diren “esparruetan” parte hartzea.
- hezitzaileek (irakasleak eta monitoreak...) batera egiten dituzten topaketa eta bileretan parte hartzea.
- Eskolapioen historia ezagutu, eta norberaren ikastetxean zein hurbil aurkitzen direnetan historia horren partaide sentitzea.
- eskolaz kanpoko esparruan ere, ahal den neurrian, parte hartzea.

4. Ikastetxean pertsonalki inplikatzeko da

Aurreko hiru esparruak irakaslearen egitekoari begiratzen diote. Badago beste esparru bat, laugarrena, irakaslearen pertsonari berari, bere inplikazio pertsonalari, bere izateari begiratzen diona.

Bestetik, irakaslearen izaerari buruz hitz egiten dugunean, suposatzen dugu badituela ezaugarri pertsonal batzuk. Sartzen garen esparrua oso delikatu eta sentibera izanik, funtsezkoa da bere hezkuntza lanean eta bere garapen pertsonalean.

Ezaugarri hauetatik batzuk irakasle berriak aukeratzeko prozesuan erabiltzen dira, beste batzuk modu informalago batez. Ezaugarri guztietatik hauek nabarmen-tzen ditugu:

- heldutasuna eta oreka pertsonala
- komunikatzeko eta talde lanean aritzeko gaitasuna
- egoerak gainditu eta aurrera ateratzeko jarrrera
- aukera kristau eta sinestuna
- besteen alde lan egiteko konpromisoa



Ezaugarri hauek, nahiz eta momentu jakin batean lortu, etorkizunari begira lantzen eta zaintzen ez badira, ez daude betirako bermaturik.

Zentzu horretan, aurrera jarraitzeak esan nahi du:

- hazten jarraitzea, ez bakarrik irakasle eta hezitzaile bezala, pertsona bezala baizik.
- ikasleei eskaintzen dizkiegun balioak pertsonalki onartu eta bere egitea
- fede eta kristau konpromisoan aurrera jarraitzea
- horretarako egokiak diren baliabideak erabiltzea: autoebaluazioa, amaigabeko prestakuntza (ez bakarrik lanbideko gaietan), bizitzarako erreferentzia diren taldeak, komunitateak...

Gure ikastetxeko monitoreak

Gure ikastetxean aurrera atera nahi dugun hezkuntza proiektuan eskolaz kanpoko ekintzen monitoreak garrantzitsuak dira. Irakaslearentzat adierazi ditugun ezaugarri asko monitoreari ere aplikatzen zaizkio. Beraz, behar di-

ren egokitzapenak eginik, irakasleentzat aurkeztu dugun eskema bera jarraituko dugu.

Hala ere, boluntario izateak, zein esparrutan dabilen jakiteak eta, oro-korki, bizi duen behin-behinekotasunak ahaztu ezin diren diferentziak markatzen dituzte. Monitoreek jarraitzen duten prozesua ere, ia-ia guz-tiak taldeetatik atera baitira, desberdina da.

Eskolaz kanpoko ekintzen monitorea definitzen duten zenbait ezaugarri agertzen ditugu:

- gutxienez 18 urte izatea
- bere lana boluntarioa da
- lanean egoteko gutxienerako konpromisoa (3 urte behintzat)
- erreferentzia talde baten kidea izatea
- arduradun talde baten kidea izatea
- prestakuntza prozesu bat: sarbideko kurtsoak, monitorea, zuzendari, entrenatzaile... izateko ikastaroak
- ezarritako prozesuetan ibilia eta organo eskudunek aukeratua
- aldarte pertsonal egokia

3.2. IRAKASLE TALDEAK

IRAKASLEAK

Irakasleak ikasleekin duen harreman pertsonala oinarrizkoa da bai ikas-teko prozesuarentzat bai haien heziketarako. Harremana beti hurbil eta hezitzailea izango da, adin eta egoera bakoitzari egokituia.

Irakasle guztiek talde bakar bat osatzen dutelako kontzientzia izan behar dute. Talde horren hezkuntza jarduerak arlo eta ekintza guztietan zehar eta kurtso guztietan barrena koherente eta eraikitzailea izan behar du. Horrela heziketa aberasgarri eta integratzaile bat lortuko da, ikasleen nortasunaren hazkunde positibo eta orekatua sustatzen duena.

Irakasleak modu askotara koordinatuko dira:

- irakasleen klaustroa: ikastetxe osokoa edo etapaka
- ziklo, maila eta gelako taldeak
- tutoreen taldeak
- arloko mintegia

Talde horien koordinazioa hauek egingo dute:

- koordinazio orokorra pedagogia koordinatzeko taldeak, zuzendaritza taldeak, zuzendariak
- etapa edo zikloko taldeena talde horietako koordinatzaileek
- gelako taldeena tutoreek

- mintegiena mintegiburuek
- Orientazio departamentuarena ikastetxeko orientatzaileak

Arlo bakoitzaren curriculum proiektua mintegiko irakasleen taldeak presatuko du. Pedagogia koordinatzeko taldeak onartu ondoren arlo hori ematen duen irakasle bakoitzak aplikatuko ditu. Mintegi bakoitzak arloko ekintza osagarri guztiak etapaka programatuko ditu.

Ikaslea kurtsoz, zikloz edo etapaz pasatzea beti haren irakasle taldeari dagokio.

Ahal den guztietan berrikuntza pedagogikoak, diziplinarteko ekintzak, eskolaz kanpoko ekintzak... bultzatzeko irakasle taldeak eratuko dira.

MONITOREAK

Hezitzaile hauek mugitzen diren esparruetan harreman pertsonalak hurbilagoak izaten dira, hala ere, harremanak beti adin eta egoera bakoitzari egokituak eta hezitzaileak izango dira.

Monitore guztiek talde hezitzaile zabalago bat osatzen dutelako kontzientzia izan behar dute. Talde horren hezkuntza jarduerak arlo eta ekintza guztietan zehar eta kurtso guztietan barrena koherente eta eraikitzaileak izan behar du. Horrela heziketa aberasgarri eta integratzaile bat lortuko da, ikasleen nortasunaren hazkundera positibo eta orekatua sustatzen duena.

Monitoreak modu askotara koordinatuko dira:

ekintzen araberako taldeak (kirolak, aisialdia...)

ziklo, maila edo gelako taldeak

- Talde horien koordinazioa hauek egingo dute:

koordinazio orokorra zuzendaritza taldeak edo zuzendariak

arduradun taldeena talde horietako koordinatzaileek

ziklo, maila edo gelako taldeena dagozkien koordinatzaileek

Arlo bakoitzeko proiektua arlo horren arduradun taldeek egingo dute. Eta zuzendaritza taldeak onartuz gero, monitore bakoitzak aplikatuko du.

3.3. ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

Orientazioa. Orientazioak, ikasleari eskola bizitzan laguntza eta aholku egokiak emanez, beren errendimendu intelektuala eta garapen integrala hobetu nahi ditu.

Orientatzaile eta tutoreek osatzen dute.

Oinarrizko orientazioa. Ikasle guztiek jasotzen dute eta helburu hauek ditu:

- Hezkuntzako kalitatea eta ikasle bakoitzaren errendimendu intelektual eta eskolakoa hobetzen laguntzea.
- Ikastea eta garapen pertsonala eragozten dituzten arazo emozionalak eta heldutasun atzerapenak lehenbailehen aurkitzea.
- Beharrezkoa dela ikusten den kasuetan terapiabide egokiena ezartzea bai tresneria arloan (ikaskuntzan) bai emozioen arloan (nortasun garapenean).
- Gurasoei seme-alaben heziketa lanean lagundu eta babestea.
- Familia eta ikasleari zein diren bere gaitasunak, interesak eta pertsonalitatea informatu, eta lanbidea eta ikasketak hobeto aukeratzeko orduan lan merkatuaren egoeraz aholkatzea.
- Labur esanda, ikasle bakoitza ahal den modurik pertsonalizatu eta egokienean ezagutu, eta, ondorioz, ulertu eta tratatzea.

3.4. IKASLEEN GURASOAK

Hezkuntzan seme-alaben erantzule nagusi eta lehenak gurasoak dira. Ikastetxeak, eskuartean dituen ahalbide guztiak erabiliz, haiekin lan egin nahi du eginkizun horretan.

Ikastetxea familiaren osagarria dela uste dugu, eta horrek familiaren eta ikastetxearen arteko harreman estua eskatzen du. Ikastetxearen lane-rako gurasoen eta hezitzaileen arteko komunikazio eta lankidetzak oso garrantzi handikoa da; eta seme-alabek barneratu behar dituzten jarrera eta balioetan familiako giroak eragin handia du.

Ikastetxe hau hautatu duten gurasoei hemen eskaintzen dugun heziketaz, Izaera Propioan eta Hezkuntza Proiektuan adierazten den hezkuntzaz, informatu behar zaie. Eta beren seme-alabak ikastetxean matrikulatzean, honen izaera propioa errespetatzera eta izaera horrekin ongi ez datozen orientabideak eta ekintzak ez eskatzera behartzen dira.

Nahi eta bilatzen ditugun familia eta ikastetxearen arteko harremanetan:

- Irakasleek ikaslea sakonago ezagutzeko aukera izango dute eta horrela hobeto ulertu eta lagunduko diote.
- Gurasoek beren seme-alabek dituzten aurrerapen edo zailtasunei buruz informazio egokia izango dituzte eta heziketan behar den laguntza emateko moduan egongo dira.
- Ikasleak heziketa koherente bat, etxean hasitako hezkuntza jarduna jarraitu eta osatuko duena, hartuko du.
- Ikastetxeak gurasoen laguntza eta lankidetzak izango ditu:
 - kide anitzeko organoetan parte hartuz, ikastetxea kudeatu eta zuzentzeko.

- hezkuntza ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak bultzatu eta antolatzeko.
- sortu ohi diren edozein arazotan aholkua emateko.
- ikastetxeko martxa berrikusteko

Horrez gain, guraso fededun askok beren seme-alabak gure zainpean jarri dituzte ikastetxe kristaua delako. Aita-ama horiek erantzukizun berezia daukate: beren presentzia eta testigantzez ikasleen fedea hazten eta lantzen, eta kristau komunitatean sartzen lagun diezaiekete. Bestalde, ikastetxeak eskaini nahi duen kristau heziketari eusteko eta gaurkotcheko, haien laguntza eta lankidetzara behar ditugu. Eta ikastetxeak bere aldetik fedea lantzeko eta prestakuntzan sakontzeko egokiera eskaintzen die gurasoei.

Gurasoak eta tutore, irakasle edo zuzendaritza taldeko kideak bildu eta topaketa pertsonalak izatea oso inportantea dela deritzogu. Horrelako bilerak ahal den guztietan sustatuko ditugu.

Gela bakoitzeko ikasleen gurasoekin urtean zehar talde bilera batzuk egingo dira. Baita ere bilerak egingo dira gurasoekin ekintza espezifikoekin eta eskolaz kanpoko taldeen kontu eta arazoak tratatzeko.

Ikastetxeak, bilera edo gutun idatzien bidez, ustez komenigarria den edozein informazio emango die gurasoei.

Ikastetxeak gurasoei ikastaroen eta guraso eskolen bidez prestakuntza aukerak (hezkuntzako eta hazkunde pertsonaleko gaiak) eskainiko dizkie.

Nahiz eta parte hartzea beti borondatezkoa izan, gurasoei (GE) Guraso Elkarteak deitzen diren taldeetan bildu eta bazkide egin daitezzen gomendatzen zaie. Helburu bat izan behar dute: beren eskubide eta interesak defendatu, beren prestakuntza sustatu eta ikastetxeko lanari hobeto laguntzea. Ikastetxean badago horietako elkarte bat. Legeak onartutako nortasun juridikoa eta estatutu propioak ditu. Oraingo ikasleen guraso gehienak elkarte horren kideak dira.



4. METODOLOGIA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Irakasleen taldeak metodologiaz etengabeko prozesu batean gogoeta egin eta erabakiak hartu behar ditu. Arlo bakoitzaren didaktikan egiten diren aldaketak eta printzipio pedagogiko berrien egokitzapenak metodologian agertu behar dira.

Edukiak aurkezteko moduak gauza askori erantzun behar die bai arloaren egitura, koherentzia eta antolakuntzari, bai bizitzarako dituzten ondorio eta iradokizunei, bai ikasleen ezaugarri psikologikoei.

Metodologia edukiei egokituko zaie, izaera desberdina baitute kontzeptu, prozedura eta jarrerak. Horietako bloke bakoitza lantzeko prozesu didaktikoak modu, metodologia eta estrategia desberdinekin aberastuko dira.

Arazo didaktiko eta metodologikoak berrikusi eta gaurkotzea etengabeko kezka izango da. Jarrerak, balioen heziketa eta hezkuntza proiektuko aukera nagusiak lantzerantz zuzentzen diren prozesuetan sakontzen arduraz berezia hartuko dugu.

Zuzendaritza taldea, mintegi buruak eta klaustroa, hezkuntzaren erreformak ematen dituen aukerak aprobetxatuz, saiatuko dira arlo eta etapa guztietako hezkuntza eskaintza gaurkotzen dituzten esperientzia eta proposamen berriak ezagutu eta zabal daitezen.

Gure ustez motibazioa prozesuaren fase garrantzitsu bat da: edukiak aurkeztean ikasleen atentzioa bereganatzen saiatuz, ikasteko interesa sustatuz eta ahalbidetzen duten faktoreak bilatuz.

Irakasteko eta ikasteko prozesuaren fase guztiak aktiboki landuko dira, beti ikaskuntza esanguratsuaren eta konstruktibismoaren printzipioak kontuan hartuz.

- lehen fasean: motibazio, arreta eta pertzepzioa
- edukiak manipulatu eta lantzeko fasea: zenbait teknika eta baliabide-
ren bidez (antolatzaileak, zuhaitzak eta eskemak, sintesiak eta azter-
keta intuitiboak) ikasleek duten aurretiko ezagutza eta eskemetan sar-
tuz eta egokituz
- sintesi pertsonala egin, errealitatearen esparruetara zabaldu eta apli-
katzea (errealitatean baliagarriak direlako kontzientzia, transferen-
tzia).

Proposamen metodologikoak askotarikoak izan behar dira, edukiak eta ikaskuntzak modu askotara aurkeztea ahalbidetzeko eta oso desberdinak diren ikasteko gaitasun eta estilo pertsonalei egokitu ahal izateko.

Metodologia askotariko horien artean kontuan hartu behar dira zenbait proposamen eta ekintza, batez ere, oinarrizko ikasketak (kalkulua, arazoibide matematikoa, irakurketa, ahoz eta idatzizko ulermen eta adierazpena, oinarrizko kultur-alderdiak, errealitate hurbilaren ezagutza eta interpretazioa, osasun eta garbitasun ohiturak, usadio demokratikoak) indartu eta eragiten dituztenak horiek baitira geroko edozein ikaskuntzarako oinarria eta horiei ekin behar baitzaie kurrikuluaren arlo guztietatik.

Ezagutzak zabaldu eta gehitzeko ekintzak ere sustatu behar dira.

Metodologi prozesuek “ikasten irakasteari” eta “ikasten ikasteari” arreta berezia eskainiko diete eta beti saiatuko gara ikasleengan lan egin, ikasi eta ikertzeko teknika eta estrategia pertsonalak garatzen.

Ikasteko egiten diren ekintzetan garrantzitsua da bai ikasiari buruz bai ikaste prozesuari berari buruz gogoeta egitea, eta hazkunde prozesuari laguntzen dioten buru gaitasun eta eragiketa guztiak garatzen saiatzea.

Badira gauza batzuk (ingurunea, esperientzia hurbilak eta lurraldeko kultur ekimenak) eskolako ikaste prozesuan erabili behar direnak, eta ikasitako eduki guztiak haietan aplikatu eta haiekin harremanetan jarri behar dira.

Beste batzuk (hezkuntza premia bereziei arreta egitea, curriculumaren egokitzapen esanguratsuak eta aniztasunaren trataera) gogoeta egiteko eta metodologiak egokitzeko abiapuntuak dira, ikasle guztietan oinarrizko ikasketak indartzeko.

Berdinen arteko lanak eta maila bereko kideek elkarri ematen dioten laguntzak irakasteko eta ikasteko modu desberdinak garatzen lagundu behar digute. Beraz, talde-gelako kohesio eta bizitza, bateratze lana, partaidetza, forma solidario, adeitsu eta demokratikoak erraztuko ditugu.

Badira beste modu batzuk bizitza eta errealitatea gelara ekartzeko bultzatu behar ditugunak, eduki globalak eta diziplinartekoak dituzten ikasketetan (egunkaria, irteerak eta bisitak, harreman zuzena errealitatearekin, asteak...) saiatuz eta proiektuan eta programazioetan proposatutako interesgune eta balioen inguruan ekintza bereziak programatuz.

Irakasleak edukien eta ikasleen arteko bitartekariak izan behar dira. Horren arabera ikasleek ikasketa-eraikuntzan aktiboki parte har dezaten saiatuko dira, haien trebetasun, estrategia eta gaitasunak garatuz eta horiek praktikan jartzeko moduak eta ezaguera-maila hurbilera iristeko bideak ahalbidetuz.

Gauza hauek: irakasleen bizipoza, ikasleekiko enpatia, gelako giroa, laguntza eta hurbiltasun pertsonala, ikastetxeko taldeen arteko koordinazio eta harreman onak, gurasoekin koordinatua ibiltzea eta abar ikasleek ikasteko duten jarreran eta gogoan eragina dute.

Kirol jardunek, eskolaz kanpoko jarduerak, ikastetxe inguruko gazte eta aisialdiko elkarteek hezkuntza proiektuan dauden balio eta ideien garapena bultzatuko dute.

Hezkuntza praktika hobetzeko, behar diren baliabide eta tresnak gaurkotzen saiatuko gara, eta bereziki interesatuko zaizkigu ikasleak teknologia berrietara hurbiltzen edo lan munduan sartzan laguntzen duten bideak.

Erabiltzen ditugun metodologiei buruz egiten ditugun gogoetak, gaurkoak eta ebaluazioak beste guztiei pasako dizkiegu.



5. ORGANIZAZIO EGITURAK

Ikastetxea erakunde hezitzaile bat bakarra da, ikasleen hezkuntza integrala bilatzen du bai eskolan bai eskolaz kanpo, dela gizatasunean dela erlijioitasunean eta egin nahi duen lana adin txikitan hasi eta nahi dutenentzat eskolatze aldia bukatu ondoren ikasle ohien taldeen bidez luzatzen da.

Nahiz eta ikastetxeko kide eta organo guztien erantzukizuna ikastetxe osora zabaldu, nahiz eta guztiek horretan erantzule eta solidario sentitu behar, hala ere, pertsona eta hezitzaile-talde bakoitzak eman zaion talde, etapa edo jardueraz arduratu eta hartaz erantzuten du. Bi erantzukizun mota hauek elkartu eta batera ondo eramatea garrantzi handikoa da ikastetxeko martxa onerako.

Ikastetxeak, eraginkortasun handiagoa lortzeko, indarrean dagoen lege-diaren arabera erabaki eta ezarri duen antolakuntza Barne Araudian adierazita dago.

6. EBALUAZIOA

Ikastetxearen lana prozesu luze eta zabal bat da, eta bertan irakaste eta ikastea, heziketa eta auto heziketa daude, adimen, afektu eta harremanezko alderdiak jorratzen dira, eta egitura, materia eta pertsonari dagozkion faktoreak lantzen dira. Prozesu horren emaitzak oso garrantzizkoak dira, baina zehazteko zailak. Hezkuntza prozesuan integratua egon behar duen ebaluazioak alderdi hauek ebaluatu behar ditu: ikasleak, irakasleak eta haien lan hezitzailea, proiektua bera eta bertan ezarritako curriculumak, eta ikastetxea bera ere.



6.1. IKASLEEN EBALUAZIOA

Ebaluazioak, batez ere, xede hezigarri edo pedagogikoa izan behar du. Hau da, ikaste prozesua eta haren emaitzak hobetu eta aberasteko balio behar du, eta hezkuntza helburuak, gaitasunak eta egindako saioak kontuan hartuz, agerrarazi behar du batetik zein diren arazoak eta bestetik zein metodo hoberenak edo alternatiba egokienak.

Ebaluazioak, mailak igo ahala, eginkizun sumatibo bat hartuko du, eta ebaluazioak, lortu diren emaitzak ikusiz, ikasle bakoitzari eskala baten barruan kategoria bat ematen dio.

Batak zein besteak ikaslea bizkortu eta akuilatzeko, kasu bakoitzean behar den laguntza pedagogikoa zehazteko eta erabaki egokiak hartzeko balio izango dute.

Ikasleen ebaluazioak hezkuntza prozesu guztietan aurkitzen diren ezauzgarri hauek izan behar ditu:

- objektiboa, ahal den zehaztasun zientifiko handienarekin
- jarraitua, prozesu guztian zehar eta ez une puntual batzuetan bakarrik
- integratua, aurreikusitako gaitasun eta helburu guztiak aztertuz
- talde ebaluazioa, batez ere ziklo edo etapen bukaeran, prozesuan esku hartzen duten pertsona guztiek ebaluazioan parte hatzen baitute.
- errepikaria eta aukera ematen duena, errekupeazioa eta ikaste prozesuaren hobekuntza ahalbidetzen baititu.

Prozesuan dauden pertsona guztiek (ikasle, guraso eta irakasleak) kontzientzia hartu eta zuzendu behar den guztia errazago egoki dezaten, ikasturtea zenbait ebaluazio alditan zatituko da, eta haien bukaeran informazio ebaluatzailea bildu, eta ikasle eta gurasoei emango zaie. Ikasturte hasieran, edo gutxienez zikloa hasterakoan, hasierako ebaluazio bat egingo da, ikasle edo talde bakoitzak dituen hezkuntza premien diagnostikoa emango duena.

6.2. IRAKASLEEN, IKASTETXEAREN ETA HEZKUNTZA PROZESUAREN EBALUAZIOA

Irakasle bakoitzak, auto ebaluazio prozesu baten bidez, sarritan ebaluatu beharko du bere egitekoa. Mintegiek edo irakasle taldeek urtean zehar gutxienez saio bat izango dute, taldeko irakasleen hezkuntza prozesua ebaluatzeko. Emaizak, hezkuntza prozesuak, agenteak eta ikastetxean erabiltzen diren baliabideak aldizka ebaluatzeko modua zuzendaritza taldeak erabakiko du; ebaluazio hauekin hauxe lortu nahi dugu: irakasleen hezkuntza jarduera sustatu eta ikastetxeko kalitatea hobetzea.

Ikastetxea ebaluatzean erantzule nagusia hezkuntza komunitatea da. Ebaluazioan komunitatea osatzen duten estamentu guztiek parte hartuko dute, bakoitzak bere ahalbide eta ikuspegitik. Eskola kontseiluak urtero kurtsoaren hasieran ikastetxearen ebaluazio bat egingo du, urteko programaziotik abiatuta.

Erakunde titularrak eta Ikuskaritza Teknikoak ikastetxearen kanpo-ebaluazioak egin ditzakete. Ebaluazio horietan ikastetxeko langile guztiek lagunduko dute eta gure irakaskuntza hobetzeko kontrol eta akuilatzegisa balio behar digute.

Ikastetxearen hezkuntza proiektua (IHP) ebaluatzeko orduan ebaluazioa gidatuko duen irizpide bat aurkitu behar da, eta KOHERENTZIAREN irizpidea oso egokia izan liteke: koherentzia proiektuaren barruan, beste dokumentuekin eta errealitatearekin.

Ikaste prozesua ebaluatzeko behar-beharrezkoa da arloka markatu diren helburuak berrikustea, ekintza, baliabide, material eta ebaluazio irizpideen baliotasuna egiaztatzea eta ebaluazioa idatziz ematea.

Ikastetxea ebaluatzeko, puntu hauek aztertuko dira: zuzendaritza mota (aktibo, pasibo, teknikoa), eskola giroa (ordenatua eta antolatua), gurasoen informazio maila (kantitatea eta kalitatea), pedagogiaren kontuetan eta bere prestakuntzari dagozkion gaietan irakasleek duten partaidetza, irakasleek ikaslerik gabe egiten dituzten lanak (programazioa, ebaluazioa,...).

